

KOSTU EGITURA

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak eguzki panela duen mugikor-zorroa diseinatu, garatu eta merkaturatzeko behar diren gastuak dira. Lehenik eta behin, kostu finkoak ditugu, hau da, ekoizten dugun zorro kopurua handitu edo txikitu arren, berdin mantentzen diren gastuak. Horien artean sartzen dira produktuaren diseinua, ikerketa eta garapena, lehen prototipoak sortzea, beharrezko makineria erostea, segurtasun- eta kalitate-ziurtagiriak lortzea, eta hasierako marketin-kanpainak. Kostu hauek oso garrantzitsuak dira, proiektua martxan jartzeko ezinbestekoak direlako.

Bestalde, kostu aldagarriak ere badaude, zorro bakoitza ekoizten dugun bakoitzean sortzen direnak. Horretan sartzen dira eguzki panela, bateria eta beste osagai elektronikoak, zorroaren materiala, muntaketa-lana eta bezeroei bidaltzeko gastuak. Kostu hauek zuzenean lotuta daude ekoizpen kopuruarekin, eta horregatik eragin handia dute azken produktuaren prezioan.

Horrez gain, gure projektuan eskala-ekonomiak kontuan hartzea oso garrantzitsua da. Zorro kopuru handiagoa ekoizten dugunean, unitateko kostua txikiagoa bihurtzen da, materialak kantitate handitan merkeago eros ditzakegulako, fabrikazio-prozesua azkarragoa eta eraginkorragoa delako, eta banaketa-gastuak produktu bakoitzeko murrizten direlako. Horri esker, produktua prezio lehiakorragoan eskaini dezakegu.

Azkenik, hedapen-ekonomiak kostu handien artean daude. Hori gertatzen da enpresak baliabide berberak erabiliz produktu gehiago sortzen dituenean, gastu handirik gabe. Gure kasuan, makina, langile eta diseinu bera erabil dezakegu zorro bera hainbat mugikor modelo egiteko edo antzeko produktu berriak sortzeko, diru gehiago irabazteko aukera izanik.